


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

51. zenbakia

94ko uztailak 8



125 urte

Ordiziako suhiltzaileak



itxura baino
gehiago...

ANT7A

FOTOKONPOSAKETA

IMPRESARIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 – Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA



UNED - Bergara

EZ ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK

E.G.A. Maila
SAKONTZE I eta II Maila
Psikomotrizitatea
Master Gerontologia Psiko-Sozialean

ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK

Sarrera Ikastaroa
Zuzenbidea
Geografi eta Historia
Hispaniar Filologia
Ekonomi Zientziak
Enpresal Zientziak
Fisika Zientziak
Matematika Zientziak
Kimika Zientziak
Industrial Injenieritza
Politika Zientziak
Soziologia
Psikologia
Hezkuntz Zientziak

Aurtengo bi berrikuntzak, hauek dira:
Gestio eta Sistemen Injenieritza Teknikoa

Lehenengo aldiz matrikulatu nahi duenak, aurreinskripzioa egin beharko du uztailaren 29 baino lehen. Behin eskaera onartu ondoren, matrikula egin beharko da irailaren 20tik urriaren 17ra bitartean.

San Martin Plaza z/g, Bergara

Tfnoak: 76 13 42 / 43

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur Elkartea.
Dorre-etxea, 1.
(Correos-gaitean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 161463.
124 posta kutxa, Ordizia.
Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Josune Agirre, Argider Mujika.
Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Estitxu Imaz.
Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:
 Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Ana Irastorza, Aitor Calvillo, Rufino Iraola, Joseba Telleria, Aloña Galarraga, Jon Aldanondo Aitzol Arruabarrena Bittor Merino, Pako Zubledia, Mikel Oiarbide, Imanol Mujika, Andres Barandiaran, Gabino Murua, Jaione Iurramendi eta Iñaki Murua.
Azaleko argazkia: J Marin
Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA.
Inprimaketa: ANtZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)
Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpidedun.
ISSN: 1132-0907
Lege Gordailua: SS-926/89
Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Loinaz Olanoren kritika soziala

Arte Ederretan Lizentziaduna da Loinaz Olano, 26 urteko beasaindar gaztea. Bere 3. erakusketa egin berri du Beasaingo Aterpe tabernan.

G.- Zer isladatzen dute zure koadroek?

E.- Gaurko egoera soziala kritikatzan dute nire lanek. Giza gorputza eta errealtatea isladatzen duten argazkiak hartu eta nire erara interpretatzen ditut. Giza gorputzean oinarrituriko kritika soziala egiten dut. Giza gorputza interesatzen zait. Bolumena nabarmendu nahi izaten dut.

G.- Beltza eta horia na-

barmen dira zure lanetan.

E.- Pop-artearen koloreak dira beltza eta horia. Kontrastea lortu nahi izaten dut.

G.- Zein materiale erabiltzen duzu?

E.- Akrilikoa eta oleoa erabiltzen ditut batez ere. Baina koadro batean praka batzuk daude eta gogortzeko, erretxina erabili dut.

G.- Aurrera begira zein asmo dituzu?

E.- Zenbait ikastaro egiten ari naiz, lanen bat aurkitu bitartean. Donostian eta Altsasun erakusketak egiteko asmoa dut baina gainontzean ez daukat proiekturik. Hobe da ez pentsatzea. Denak alderantziz ateratzen baita.

Besteek esana

"Motibazio integratzailea deitzen den hori (euskal gizartean integratzearena eta), frankismoaren ondoren indar gehiagoz eman zen. Egun, hori ere bada-
 goen arren, ordutik ezberdina da. Bat oso beroa zen, baina atzera azkar pasatzen zen. Egungoa helduagoa da, ez horren beroa, baina konstanteagoa."

Arriarango Xabier Elortza
HABEko ikuskatzaileak
"Argia"-n, 94- VI-26.

"Haurtxo nintzenean, mundua Ataunen bukatzen zela uste nuen; bertaraino eramaten baigintuen, urrutienik ere, amak. Ez ginen berehalakoan iristen La Estellesa delako autobus haietan! Urruti egiten zitzaidan Ataun, gaur bezain gertu egon arren. (...)Alde ederreko autobide dago orain: txukuna, zabala, eroso, arosoa, segurua... eta ezer ordaindu beharrik gabekoa. (...)Nabarmenak dira Goierrirako autobide horren mesedeak. Eskertzekoa da, benetan, herri-lanetan ikusten den aurrerapena!"

Joxe Ramon Zubimendi ataundarrak **"DV"-n, 94-VI-21.**

"(...)Milaka euskaldun zahar-berri iragan dira Lazkao. Euskalerrri osoko eta atzerriko hamaikak hartu izan ditu euskararen barnemuin ezkutukoak. Lazkao Txiki berak zioen bezala, Lazkao bigarren ama bihurtu da frankorentzat. Goierrri eskualdearen duintasun eta kategoria ez da edonolako eta bere euskal senaren emari ezkutuak iraungo ahal dute luzaroan."

Pello Joxe Aranburuk,
"Maizpide"-ren 2. zenbakian.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ruanda: Afrika erabat baztertuta dago

Ruandako krisi negargarri honek, ahaztuta bageunden ere, Afrikari buruzko zenbait arazo azaldu dizkigu. Egia esan, Nazioarteko erakundeak, eta gu geu ere bertan sartuta gaude, zuk eta nik, badugu zer esanik Afrikako krisi hone-tan.

Lehenago aberastasunak kendu zaizkio Afrikari, handik ateratako funtsezko materialak hemengo aberastasunaren oinarri izan direla ere esan izan da inoiz. Orain, berriz, han sortzen diren produktuei, kafe, e.a. hemen ezartzen zaizkie salerosketako prezioak. Ruandatarrek eta Afrikako biztanle askok hala diote: "gure lanaren soldata ez da izaten jateko, edo hezkuntzarako edota etorkizunari bultzatzeko, kanpozorra deritzaion hori ordaintzeko baizik". Hemen gabiltzala galdetzen digute inoiz: daukanari kentzea pekatu al da? Ruandan europearri harrapatzea ez dute pekatutzat jotzen. Desberdintasuna nola gutxitu?

Nazioarteko erakundeek ez al diote Afrikari edo Hirugarren Munduari asko kendu? Batzutan zuk baino indar gutxiago duenari kentzea ez zaigu pekatu denik iruditzen... indartsuak jartzen duela legea eta horrelakoak esatea ez dela egia esango dizute. Baina munduari, orokorrean sakonki begiratzuz gero, horrelakoak egi asko daramala esan behar da gutxienez. Etika hau edo horrelakoak ez dizkigute eskoletan erakutsi, noski.

Lurra eta lurraren aberastasunak, denontzako izan behar dute. Lurrak ematen duena, denon ugaritasuna izan behar du. Gaur berriz %20ak eramaten dugu lurraren aberastasunen %80a. "Zuri behar beharrezkoa ez zaizuna, ez da zurea...". Hori esango digu Gandhik. Horrelakoak ez ditugu ikasten ezta eleizan ere. Zenbat

gauza ditugu behar beharrezkoak ez zaizkigunak? Gaurko munduak duen egoeran, ez da aski soberan duzun horretatik ematea, gehiago egin behar da, kontsumoari buruzko ohiturak aldatu beharko genituzke, hau da, behar dugunetik bakarrik hartu, ez genuke ezertxo ere gorde behar, behar-beharrezkoak izan ezik, munduan garen gizon-ema-kume guztiak pertsonari dagokionez bizi gaitezten.

Munduko aberastasunak pilatzeko barnean daramagun grina horri barau egiten erakutsi diezaiogun. Gure lagun urkoari eman dezaio, behar-beharrezkoa den hori ere askotan falta zaiolako. Horrela aberatsen baraua pobreen alimentu bihurtu dadin. Aita Santuak horrelakoak esaten zizkigun aurtengo gari-zuma aldirako mezuan. Argaltzeko eta baraua egiten badakigu, baina besteei laguntzeko, gose dagoelako edo behar haundian, hori ez dugu sarritan ikusten. Horrelako ohitura batzuk behintzat aztertuta beharko genituzke Hirugarren Munduari, Afrikari, Ruandari laguntzeko bidean.

*Ruandan egondako Leonardo
Esnaola lazkaotar jesuita*

Gazte gera gazte ta ez gaude konforme!

Gurasoen etxea utzi eta lagunekin (izan liteke bat, izan litezke sei, neska zein mutil...) bizitzen jartzeko ezkondu beharrik ez dago. Eta gainera, 3 urte betetzean umea eskolatzen dugun bezalaxe, gaztea behin 18 (?) bat betetzen dituenan gizartean bere lekua aurkitu eta familiarekin dituen loturetatik askatzera bultzatu beharko genuke: familiarekiko loturak askatzeak ez du haserrea esan

nahi, baizik eta bakoitzak bere bizimodu egin, bizimodu hori errespetatu eta konfidantza eta elkarlaguntza giroan bizitzea.

Bakoitzak bere eltzetik atera behar ditu babak, onerako zein txarrerako. Eta hori litzateke familian umeari eman beharko litzaioken heziketa: etxeko lan eta ardurak banatuaz, dakienak ez dakienari erakutsiaz, baita umeek gurasoei ere, eta elkar errespetatuaz. Egoerarik txarrena eta gehienetan ematen dena zera da ordea: alde batetik seme-alabak gurasoak nondik "jetziko" egotea (bat eskatu eta bestea eskatu) eta bestetik, gurasoek, jadanik gazte edota heldu diren seme-alabak oraindik ere umeak bailiren ondoan eduki nahi izatea betiko.

Egin dezagun guraso eta seme-alabok bakoitzak bere bizimodu eta elkartu gaitezten lagun bezala behar dugun guztietan! Baina ezin teoria polit hori praktikara eraman, zeren egungo gehienon pentsakera aldatuta ere, zein gaztek ordain dezake pixu baten alokairua? Lan "on" (soldata on, hobeto esanda) eta ziu-rra duenak noski. Eta dagoen langabezia ikusita...

Herri bakoitzean Udala bitarteko dela zergatik ez dira pixu merke batzuk alokagai jartzen? Balio dezakeen hamaika etxe zahar huts bada bazterretan! Gazteok, eska ditzagun Gaztetxeak, baina ez ordu batzu pasatzeko lekuak soilik (horiek ere oso ongi daude, e!), baizik eta Gazte-Etxeak, etxebizitza gazte eta merkeak. Behin hori lortuz gero ez al ginateke gai izango, taldetan antolatu eta lan aberatsa eginez (hainbat eskulan...) gustora bizitzeko? Nik uste baietz!

Pedagoga bat

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

MARI JOSE MERTZERIA Kinkila-denda

☎ 887267
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Agenda

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:721614
 Donostiako Erresidentzia: ..453800
 Gurutze Gorria:272222
 DYA:464622
 SOS Deiak:088
 Eguraldi informazioa:094
 Errepideen egoera:288888
 Ertzantza (Beasain):887350
 Suhiltzaileak (Ordizia):881362
 Renfe (Beasain):880853
 Sarasola Garraioak:880710
 Pesa Garraioak:880668
 Estellesa (Donostia):470115
 Itxaropenaren tfnoa.:458005
 HIES-SIDAr buruzko Inf.: 282666
 Alkoholiko Anonimoak:276618
 Goierri Lanbide Eskola:880062
 GOIERRITARRA889612



Errezeta



**Angel Oruesagastik
 emana
 Ñañarri sagardote-
 gia Abaltzisketa**

LEGATZA SAGARDOAZ

Osagaiak:

Legatza (bi zati), olio, baratxuri ale bat, perrejila, almejak, ilarak, esparragoa, sagardoa, esparrago ura eta arrai salda.

Lurrezko ontzi bat hartu, bertan olio eta baratxuria sutan berotzen jarri. Baratxuria egiten hasten denean,

legatza gehitu eta ontzia mugitzen hasi. Bi minutu pasa ondoren, legatzari buelta eman ontzia gelditu gabe eta minutu bat pasatzean, poliki-poliki sagardoa botatzen hasi. Ondoren almejak, perrejila, ilarak eta esparragoa gehitu. Azkenik esparrago ura eta salda gehitu eta mahaieratzeko prest dago.



Bota bertsoa



**Ekaitz Goikoetxea
 Gaia: Goierriko bertso-
 lari gazteak indarrean
 Doinua: Zuek horrela
 ikusi eta**

Lazkao Txiki ta Zepai zena izan genitun aurrena gabiriatar Murua eta Mendizabal da hurrena bertsolaritza suspertu dute Euskal Herrian barrena hori da hori kemena saiatuz ahalik gehiena irri bilakatzuz pena orain gazteok eman diogun guzti honi ondorena jarrai dezagun harrobia ta beraien bide zuzena. (Bis)

Begiratuaz goierritarron bertso eskola aldera Aitor Sarriegi, Haritz Zeberio, Alaitz Sarasola bera Igor Eguren, azkenik Ekaitz gogor guztiok batera begiratuaz aurrera ta galdu gabe aukera goruntz iritsiko gera nahiz ta helduek txukundu duten lehenagoko egoera guk lehen mailan jarriko dugu bertsoa eta euskera. (Bis)


TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53 ARAMA

EKAITZ Taberna

Gabiri-alde
 Ormaiztegi ☎ 88 27 71



Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan
 Domingo Unanue Plaza
 ☎ 88 93 25 ORDIZIA

HIZKUNTZA

Ingelesa, alemana
 Ikastaro intentsiboak

Uztailean

Zai gaude!

Maila eta adin guztiak
 40 ordu 17.000 pzta.
 20 ordu 10.000 pzta

Kale Nagusia, 21
 Tf. 161727 BEASAIN

Lana

□ Enpresarialeseko bi ikasle kontabilitateko klase partikularrak ematen dituzte euskaraz Ordizian udan zehar. Tfnoa.: 161620, Jose Jabier.

□ Emakumezkoa behar da 3-4 ordutan etxekolanak egiteko. Dei Ordiziako 160664 tfnora.

□ Mekanografia lanak ordenadorez egiten dira. 882843 telefonoa, Eli.

□ Pedagogi ikasle batek psikometria eta estadistikako klaseak hartu nahi ditu udan. Deitu 806176 telefonora (Agurtzane).

Salerosketak

□ "Deville" ekonomika modernoa, egoera onean salgai, 110 litroko termoa ere badu. 885320ra dei, Telleriaz galdez.

Etxebizitzak

□ Pisua salgai Altamiran, sukalde jantzi berria, berogailua, sala, 3 gela, ganbara. 889728-886120ra dei eguerdi edo gauez.

□ Pisua alokagai Lazkaon (Areria zinema-ondoan), eguteraan, amoblatua eta egoera onean, 3 gela, sala, sukalde, e.a. Tfnoa: 881802, galde Maria Jesusengatik.

ORDIZIA.

Uztailak 9: Bertako SUHILTZAILEEN 125. urtebetetzearen ospakizuna (Ikus programa aurreko GOIERRITARRAn).

ALTAMIRAKO JAIAK

9, larunbata: 10,30: XV Altamirako Krossa, 4 urtetik 19ra bitarteko mailak; **11,30:** Marrazki lehiaketa; **15,00 eta 16,00:** Futbito txapelketaren amaiera, txiki eta helduak; haur jolasak; **18,30:** Herri Kirolak; **20,30:** Buruhandi eta erraldoiak; **22,00:** Herri afaria; **23,00:** Dantzaldia Ostadar taldearekin, moztortuen lehiaketa eta ondoren Stuart eskoziarraren kontzertua.

10, igandea: 10,30: Emakumeen arteko futbola; **12,00:** Dantza errejionalak; ondoren soinu-joleen kontzertua (Isidro Larrañaga Europako txapelduna tartean); **16,00:** Toka txapelketa; **20,00:** Dantzaldia Sirimiri taldearekin; **12,30:** Kalejira bikain batez, jaien bukaera eta sardinen hileta.

SANTA ANA JAIK 94

15, ostirala: 17,00: San Inazio Jakintza Ikastolan OKE- eskubaloikoek antolatutako kuadrila-txikien txapelketako 3.- 4. postuak eta finala (mini-en maila); **19,00:** Beti-Alai frontoian eskubaloiko kuadrilen txapelketaren finala; **22,15:** Ordizia taldearen "La llave en el desvan" antzerkilana Herri Antzokian.

16a eta 17a, Umearen Egunak, Katekesiak antolatuko



rik: 16, larunbata (Kuadrila-txikien eguna):

9,30-10,30: Beti-Alaien, eskubaloiko kuadrila-txikien txapelketa, infantil kategoriako 3.-4. postuak eta finala.

12,00: Altxafuegoak-eta, Umeen Jaiei hasiera ofiziala; Udaletxean aurkeztuko dira ume Alkate-Alkatesak; kuadrila txikien bilkura Enparantzan; ondoren buruhandi eta erraldoiak, txistulariak, trikitixa...; **Ordu berean, Irratizaleen 24 orduen hasiera, IECEB-k antolatuta; 16,00etatik 17,30etara:** 2. urteko kadeteentzako txirrindulari karrera, Txapel Gorrik antolatua; **17,45tik aurrera,** Kuadrila-txikien irteera, Gau-Pasa Txaranga-ekin, buruhandi eta erraldoiak, haur animazioa, kalejira Beti Argi Bandarekin, e.a. **10,30:** Suzko-zezena Arboledan; **11,00:** Umeen moztortu-berbena Beti Alaien.

17, igandea: 9,00: Goizerezia Ordiziako Txistularien eskutik; **10,00:** Meza santua; txanboliteroek Ordiziako Martxa joko dute bukaeran, Beti Argikoekin; **11,00:** Julian Rodriguez mimoa Enparantzan; **12,00:** Ohizko Umeen Aurrekua bertan;

12,30: X Ortzadar Argazki Lehiaketaren sari-banaketa Barrena Kultur Etxean, luntxa ondoren; **16,45:** "Bingo" pelikula dohain neska-mutilentzat Herri Antzokian; **19,30:** Udaletxetik Bustuntzara abiatuko dira kantine-rak, handik irtetzeko Umeen Tanborrada eta Enparantza Nagusian amaitzeko geroago; kalejira bikaina ondoren.

Ordizia/Beasaingo Goardiako botikak:

Uztailak 8: Azpilikueta; **9-10:** Urbizu; **11:** Jauregi; **12:** Larnaga; **13:** Cuesta; **14:** Arriola; **15:** Urbizu; **16-17-18:** Atorrasagasti; **19:** Azpilikueta; **20:** Jauregi; **21:** Larnaga.

Ordiziako Herri Antzokia: Ostirala 8, "En tierra peligrosa", 10,15. **Larunbata, 9:** "Rusticos en Dinerolandia", 7,30-10,15. **Igandea, 10:** "Rusticos en Dinerolandia", 4,45; "En tierra peligrosa", 7,30-10,15. **Astelehena, 11:** "En tierra peligrosa", 7,30. **Larunbata, 16:** "Persecucion Mortal", 7,30-10,15. **Igandea, 17,** "Persecucion mortal", 7,30-10,15. **Astelehena, 18:** "Persecucion mortal", 7,30.

Mendizaleak:

Idiazabal K.E.: uztailak 16-17: Guara (erreka arroilen jaitsiera) (7,30etan ala 15,00etan irteera, bi egunetako ibilaldia).

Beasaingo Aitzgorri M.E.: Uztaila: gaztetxo eta umeentzako kanpamenduak Piriniotan.

GOI ME
GOIERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA OSASUNAREN OINARRIA

* Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!
* Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.



Arg.: Gema M. Arrugaeta

Bertako produktuak: xihahoriak, 2.000 pzta.; onttoak (15 kilo), 3.500; gibelurdiñak, 2.500; Sanjuan sagarra, 200 p.-k. **Landarak:** Bruselako azak eta azalora 800-zientoa; eskarola, 400; **Abereak:** Arkuma, (22 buru) 550 pzta.-k; untxia, 210-220. **Gaztak:** beheiena, 750-800 p.-k.; ardigazta, 1.350-1.600; nahasia, 950-1.200; ahuntz gazta, 1.300. **Barazkiak:** azaburua, 80-150; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarrun beltza 700-1.000 k.; gorria eta zuria, 400-600; baba berria, 200; letxua 40-60 b.; patata, 70-80 k.; porrua 85-150 x. tipulina, 60-100 k.; tomatea, 250; ozpinetako piperra, 400-500 p.-k.; baba txikia lekan, 200 k.; leka frantzesa,

250 k.; baratzeko leka, 350 k.; piper txorixeroa, 150 dozena. **Kanpoko produktuak:** frutak: arana, 200 k.; alberretxikua, 200-250 k.; banana, 140-200; kiwia, 275-325 k.; brinoia, 200-300; geriza, 250-350; laranja 130-200; limoia, 175-200; sagarra 140-200; udara, 175-200; meloia, 150-225 p.-k. **Kanpoko barazkiak:** leka, 300-350 k.; patata berria 75 k.; piper-gorria 250; berdea 290-325; tomatea 175-225; tipulina, 125 x.; **Arrainak:** amorraina, 600; antxoa 650; antxoila 1.180; bakailaua, 1.100; itsasoilarra, 1.120; izokina 1.300; kariokita 820; legatza, 1.850; mediana 1.650; peskadila, 1.280; mihiarraina, 1.650; sardina 520.

Ana Irastorza

□ **ZABALEGI ESKOLAKO IKASTAROAK.** Urteko 2. sei hilabete aldirako ikastaroak antolatu ditu, uztailan hasi eta abendua bitarte. Honakoak izango dira: Sagar eta udare fruitondo txertaketa; barazkigintza intentsiboko praktikak; senda-belarrak eta usain-gozodunak; mermeladak, edariak eta hestekiak artesauki lantzea; natur gidariak; esnetarako ardien ekoizpena; barazkigintza intentsiboa eta lorazantza; loreekin apaingarriak; untxizantza, praktikak; nekazaritza ekologikoa; lorazantza; esnetarako behien maneja; hegazti-hazkuntza bariatua eta nekazal ustirakuntzetan teknikariak.

□ **LAZKAOKO UDALAREN LAGUNTZAK EUSKARA IKASLEELI.** Bukatu berria den ikasturtean euskaltegietan ibilitakoei emango zaizkie. Uztailan aurkeztu behar dira eskaera udaletxean, NANen fotokopia, euskaltegiko asistentzia agiria eta, langabezian egonez gero, horren txartelarekin batera. Bestalde, UDAL LIBURUTEGIA goizez bakarrik (9etatik letara) irekiko dela iragarri du Udalak, datorren ikasturtea hasi bitartean.



□ **GIZARTE DESMILITARIZATUA HELBURU K.E.M.-ek.** E.H.ko Kontzientzia Eragozpen Mugimenduak kanpaina berri bati ekin dio. Eskutitzekin batera bidalitako Agiria ezagutarazi nahi diete talde desberdinei euren izenpea eman dezaten asmotan. Donostian egingo den Gizakate baterako deialdia ere zabalduko dute. Beren helburua ez da izenpe mordo bat eskuratzea bakarrik, baizik eta bakoitzak bere arloan desmilitarizazioaren alde parte har dezala eskatzea. Ahal izanez gero, 5.000 pezetako laguntza-eskariak ere egin dituzte, kanpainari laguntza emateko. Hona hemen beren helbidea: P. Duque de Mandas, 40 atzea (Egia auzoa), 20.012; 1330 p.k., 20.080 Donostia. Tfnoa.: 320292. Faxe: 320292.

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfnoa: 88 21 49 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfnoa: 88 86 84

BEASAIN

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN



Bittor Merino
Askapenakoa

***“Itsasoaren
ura putzu
batean sartu
nahia
besterik ez da
herri
aberatsen
elkarkidetza”***

Elkartasuna, Hirugarren Mundua, %0,7, laguntza, elkarkidetza... askotan nahasturik agertzen diren kontzeptuak dira. Agian hobe da banan-banan bakoitza zer den azaltzea.

Hirugarren Munduaz ari garelarik, Afrika, Amerika edota Asia datozkigu burura, baina guregandik oso gertu, European ere aurki dezakegu Hirugarren Mundu horren adierazpenik; Espainiako zenbait hiritako txabolismoa edota Ekialdeko Europako egoera tamalgarria izan daitezke, besteak beste.

Laguntza: gobernu bidez edota zenbait ONG bidez ematen diren laguntzek, muga anitz daukate. Gehienetan gutxi batzuren patriketara heltzen dira edo, are okerrago, merkatu beltza elikatzeke erabiltzen dute.

Elkarkidetza: gehienetan elkarkidetzak Hirugarren Munduko herrien heriotza geldoa ekartzen du. Itsasoaren ura putzu batean sartu nahia besterik ez da herri aberatsen elkarkidetza.

%0,7, %0,8, %8,6... Hirugarren Munduko herriei bost

Zer ote da elkartasuna?

axola zaie %1a edo %6a ematen diegun: lapurtzen duguna, ematen dieguna baino askoz gehiago izango da beti ere.

Baten batek, hileta jolearena egiten ari naizela pentsa dezake, baina gure laguntza elkartasunezko politika internazionalista batean ez badugu txertatzen, bere emaitza ahuntzaren gauerdiko eztula baino ez da izango.

Hirugarren Mundua ez da berez txiroa: geuk bihurtu dugu txiro, eta horrela jarraitzea nahi dugu. Natur eta giza errekurtso ugari duten herri hauek amildegiaren ertzean jartzen ditugu. Bertako gobernu “txotxongiloek”, erabat kaltegarria den politika liberal berria jarri dute indarrean, baina itota jarraitzen dute ordainezina den kanpo-zorra erraldoia dela eta. Eta egoera honengatik kaltetuenak, beti bezala, gizartearen behe mailak eta

neurri txikiago batean, erdi-koak izaten dira. Guzti honi, merkatal-harreman zapaltzaile eta FMI eta GATT-en politika inperialista itsatsi behar dizkiogu. Honen aurka borrokatu behar dugu, informazioa ematen, egoera salatzen eta errudunei moztarria kentzen, elkartasuneko politika internazionalista aurrera eramaten. Gure borrokarren helburua, herri hauek beraien historiaren jabe egitea izango litzateke. Herrien arteko merkatal harreman orekatuak lortu behar ditugu, benetako Demokraziaren alde lan egin behar dugu eta herri hauen burujabetasuna eta autodeterminazio eskubideak errespetatu behar ditugu. Hau ez badugu lortzen, luze iraungo du Hirugarren Munduak, eta gure gobernuen laguntzarekin lortzen den gauza bakarra, matxinadak eta altxamenduak galaraztea da.

Ez da erraza izango, aurrean dagoenak indar haundia baita, baina legea eta arrazoia gurekin daude eta borrokari tinko eusten badiogu, mundu orekatu eta zoriontsuagoa lortuko dugu.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohiko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.

Txandaka

Lagunarena

Lagunaren bila nabil. Barkatu, lagun bila. Lagunak topatzeko, neurria topatu behar aurrena, ordea. Eta ni neurririk gabe atera bide naiz plazara: ikusi dut niretzako moduko laguna eta segika hasi natzaio. Konturatu egin da segika nabikiola eta ihesari eman dio.

Berriz ere topatu dut niretzako moduko laguna, hobeto esan, berak topatu nau ni. Han, bestaldetik hona dator, niregana dator. Baina nik, estimazio bila, ihesari eman diot, korrika txikian, badaezpada ere ez bizkorregi. Lagunak: "joan hadi joan behar baduk" murreratu du nire belarrietaraino iristeko moduan; eta bakarrik utzi nau. Orain ez daukat lagunik.

Ihesi doana beti bakarrik dago; inor pertsegitzen dabilena ere bai. Suak urrunetik ez du berotzen eta gertuegitik, kiskali. Erlazioa neurri kontua da.

Rufino Iraola

Inkesta

Eguraldiak laguntzen al digu?



Julian Lizarraga
Ordiziakoa, 46 urte
langilea

Nondik begiratzen duzun arabera. Niretzat onena, astean zehar lainotuta eta asteburuan eguzkia litzateke. Bai lanerako, bai gorputzarentzat euri langarra eguraldi hobea da. Eguraldia aldatzen ari da, lehorrera egin du.



Amaia Etxabe
zaldibitarra, 25 urte
aerobic irakaslea

Niretzako mundiala da eguraldi hau. Asteazehar nahiko denbora daukat eguraldi ona aprobetxatzeko eta berdin zait asteburuetan eguraldi txarra egitea. Niretzat eguraldi onena, eguraldi sana, sargoria ez dadila izan, 20 gradu ingurukoa.




Anjel Arozena
zaldibitarra, 22 urte
autobus gidaria

Asteazehar lana egin eta hondartza edo mendia gustatzen zaigunontzat ez da batere eguraldi txukuna. Nire lanean beroa txarra da eta asteburuetan euria egitea ere...

IDIAZABALen 8 ETXEBIZITZA BIKAIN saltzen ditugu

92 m² erabilgarri + trasteleku eta garajea

PREZIO OSO INTERESGARRIAK
Gaur egungo benetazko ordain-mailara egokiturik bait gaude



Informazioa eta salmenta:
Isabel II Etorbidea, 7. Donostia Tfnoak: 450721 - 452955

KUKO Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI

Ba al dakizu...?

GOIERRIKO MENDI

NEKAZARITZAren aurtengorako programa onartua izan zen ekainaren hasieran eginiko bileran, Goierriko Udalen eta Diputazioaren ordezkariak bertan zirela. 7 sailetan banatutako era guztietako proiektu eta ekin-fza desberdinak martxan jarrita daude, beraz. Borobilduz, 190 miloieta-ko inbertsioak egingo dira aurtien eta "Goimen"en laguntza 78 miloieta-koa izango da. Hoietatik 43 miloi azpiegituretara joango dira (baserri-bideak eta ur-hornidura hobetzera); laguntzetan 13 miloi Aizkorriko Partzoneriko artzai-bizimodua hobetzera, txabolak eginez-eta; beste 7 miloi t'erdia Aralargo artzai-txabolak hobetzera. Euskal Herri mailako bi proiektu Goierriatzea lortu dute "Goimen"ek-eta. Aipagarriak diren bi proiektuok laguntza izango dute: Zerainen kokatu behar den baserriko oilaskoaren hiltegitirako (E.H.ko bakarra), 2,7 miloi; lehen Araian kokatua zegoen "Artzai Gazta" Koope- ratiba Idiazabalera dator eta 2,5 miloi izango ditu. Idiazabalgo Udalak lokala emango die eta "Goimen"en laguntza izango du lokala egokitze-ko. Bukatzeko esan, "Goimen"ek antolatuta, iaz jarri zela martxan beste inizatiba bat: eskolumeen bisitaldiak baserrietara; izandako erantzun baikorra ikusirik, aurtien ere izango du laguntzarik.

N-1 AUTOBIA Etxegarateko portuaren oinetaraino irekirik dago honez gero. Orain dela gutxi



ireki zen berriro Ordizia-Beasain arteko tunel zaharra eta baita hortik Castillo parerainoko bi errepide bikoitzak. 3,7 kilometroko obra-lanen kostua ia 2.000 miloi pezetakoa izan da. Etxegarateko bikoizketaren 1. fasea udazkenean hasiko omen da.

LUR-KUTSADURARIK

EZ. Azkenean baieztatu egin da. Lehenago ere informatu genuen "Goieki"n lurraren kutsadurari buruzko ikerketa bat eginarazi zuela. Emaizak kaleratu dira eta horien arabera Goierriko lurren kutsadurak ez dakarte arazo larriegirik osasunarentzat. Hala eta guztiz ere, 4 puntu beltz txiki badaude Segura, Idiazabal, Legorreta eta Lazkaon.

JESUS ARIN BAZTARRIKA

ataundarra Muga eta Aireko Poliziek atxilotu zuten bere Azkaineko etxean ekainaren 14an, Iparraldean izandako sarekada zabal batean. 87ko espultsio agindu bat baliatuz, frantses poliziek gau berean eraman zuten Hendaiako mugara eta Goardia Zibilaren eskuetan utzi zuten. Ordu-bete beranduago kargurik gabe askatu zuten Arin Irunen. Gerora Frantziatik espultsatzeko agindua altxa diezaioten eskatu die suprefetura-koei. Adierazi duenez, Azkainen bizi da, Irunen lan eginez: "Badira 7 urte muga pasatzen dudala egunero lanera joateko. Ez dut sekulan inolako arazorik izan muga pasatzean". Prest dago muga ilegalki pasatzeko egunero, baimena izan arte.



ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

MUNDUATE
Erlojutegia

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA

ALTZAGARATE
JATETXEA

■Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
■Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfona

ALTZAGA

“FABRIKA HAUNDIA”.

CAFek 4 tren egingo ditu da Mallorcako Palmarako. Bestalde, bi pisuko lehen tren-kotxea ikusi ahal izan da Beasaingo geltokian. Bertan egin da guztiz.

EUSKARA. EUROPA-KO HAUTESKUNDEAK ekainaren 12an ospatu ziren. Beasaingo “Euskal Herrian Euskaraz” taldeak adierazi digunez, “Kanpainako egun horietan hauteskundeei begira gauza asko egin dira herrian, eta gu kaleetan jarrita zeuden txartelak aztertzen aritu gara. Kontaketa ekainaren 10 eta 11n burutu zen. Gure ustez, datu nahiko kaskarrak atera zaizkigu, kontutan hartzen badugu behintzat, E.H.-n bizi garela eta euskara dela gure hizkuntza. Egun hauetan erabili diren mezuak ez dira behar adina erabili euskaraz. Pentsatzen baitugu, ikusirik euskarak gure herrian duen egoera, alderdi politikoak izan beharko liratekeela lehenengoak euskara bultzatzen”. EHEren datuak hauek dira:

	EAJ	EA	HB	IU	PP	PSOE
Eusk.	%50	%52	%50	%55	%0	%0
Gazt.	%50	%0	%20	%0	%100	%100
Elebi.	%0	%48	%30	%45	%0	%0

NON DAKI NON? ATAUNGO UDALETXERA

idatzi bat heldu da, Goierriin sortutako eta orain dela 34 urte Kuban hil zen Robustiano Balanzategui Martinez-en sendiartekoengatik galdezka. Bere iloba sendagilea da idazten duena, familiartekoren baten bila,



inor gelditzen ote den jakin nahian. Hau irakurtzen duenen batek zerbait baleki, dei beza horren berri emanez Ataungo Udaletxera, 180111 tfnoa.



ANTTON IBARGUREN, ALTZAGAR ABOKATU ospetsua Himalayako mendietan hil zeneke 5. urtea betetzen da datorren uztailak 13an. 4 urteotan bere omenezko mendi-ibilaldia egin ohi da eta aurten ere hilaren 10an, Altzagatik

goizeko 7etan atera autoz eta Azkartera joko da, handik oinez buelta egitekotan. 17an bere urteurreneko meza ospatuko da Altzagan.

ZEGAMA. ELIZ-PARROKIAREN inaugurazioa ospatu berria da, behin San Martingo elizako hobekuntza lanak bukatuta. Bestalde, Seguratik Zegamarako San Andresko galtzadako obrak guztiz amaitu gabe daude oraindik.

LAZKAO. Zelai Plaza eta San Migel Parrokiaren ondoko plaza konpontzeko lanak amaitu berri dituzte. Asteleheneko inaguraketan Jose Antonio Maturana Hirigintza eta Etxebizitza kontseilaria izan zen, Joan Maria Olaetxea parrokoa eta Iñaki Estensoro alkatearekin batera. Bestalde, Lazkaon babes ofizialeko 32 etxebizitza eraikitzeko hitzarmena laster sinatuko zela esan zuen Maturanak.



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen taldea

Autoelektrizitatea eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Arkupe

Tapiztegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza

☎ 88 00 84

ORDIZIA

IBAI - ONDO



ZURGINTZA HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN

125 URTE GOIERRIKO SUTEAK ITZALDUZ

Ordiziako suhiltzaileen gora-beherak

Ordiziako suhiltzaile bolondres edo boluntarioek 125 urte bete dituzte aurtien. Suteen mehatxuei aurre egiteko osatu zen lehen taldea eta Estatu espainiarreko zaharrenak izatera iritsi dira suhiltzaile ordiziarrek. Hainbeste denboran irautearen arrazoia, "izan duten borondate ona da", Esteban Eskoriaza suhiltzaile ohiak esan digunez.

1869an bi aldiz erre zen Ordizia, suteek mehatxatzen zuten herria eta horri aurre egiteko boluntario talde bat osatu zuten ordiziarrek. Udalaren laguntza izan zuten hasiera- hasieratik. Boluntario guztiak ordiziarrek ziren.

Piskanan-piskanan taldea eta materialea pilatuz joan ziren. Udaletxearen azpian kokatu zen lehen Parkea, gaur egun Udaltzainak dauden lekuan. 1906an lehen araudia egin zen. 31 lagunek osatu zuten taldea: suhiltzaile burua, bere ordekoa, materiale-arduraduna, 4 kabo eta beste 24 boronda-



Iazko taldea, ezkerretik eskubira. Zutik: J.A. Regil, Wenceslao Saez (beteranoena), J.M. Calvo, Jose Mari Zufiria, Julian Ormaetxea, Emilio Alvarez, Migel Anjel Gil, Ruben Sanchez. Makurtuta: Ignacio Garcia, Esteban Eskoriaza, Juan Lorenzo Usabiaga, Jose Migel Alvarez, J.M. Calvo.

tezko. Urteak joan ahala, kopuru hori jaitsi egin zuten. Gaur egun 10-12ko taldea da. Hasieran materialea erosteko 5.442 pezetako aurrekontua zuten: eskubonba bat, 80 metroko hiru mangera, eskilarak, farolak, aizkorak, salbamendurako zakuak zituzten besteak beste.

25 kilometro/orduko

Plazako kanpaiak eta tutua entzun bezain laster, bakoitzak bere kotxea hartu eta suteak itzaltzera joaten ziren bolondresak. Gero erosi zen Tolosan, 1920ko 2. eskuko Ford T- a. 25 kilometro-orduko abiadura hartzen zuen. Espainian zehar ere hainbat bidaia egin zituzten.

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA


Ordiziako suhiltzaileak

Guztiak txunditurik gelditzen ziren Ford T-a ikusiz. 1965ean Miguel Olea eta Isidro Usabiaga suhiltzaileei Valladolid-en egindako elkarrizketa batean ziotenez, "gauez gidatu behar izaten dugu, bestela motorra gehiegi berotzen da". Materiale asko ez dira kontserbatzen, baina Udaleko bulego teknikoa ahalegin berezia egiten ari da, dagoen materialea berreskuratzeko.

Ez dago jakiterik 125 urteotan zenbat jende pasatu den Parketik. Hasiera batean Ordiziako suteak itzaltzeko bakarrik sortu ziren. Baina inguruan beste suhiltzaile parkerik ez dagoela kontuan izanik, eskualde osorako suhiltzaileak dira ordiziarak.

Txerriaren koskada hura...

Anekdotak ugari dituzte: Zegama-Segura inguruan baserri batek sua hartu eta



Emilio Sanchez, Isidro Usabiaga eta Migel Olea Ford T-aren aurrean.



1952an, "Puerta Sol"-en maniobrak egin ondoren.

bertako txerriak emandako lanak gogoratzen ditu Esteban Eskoriazak. "Gu iristerako txerria bide erdian zegoen. Ez zen mugitu ere egiten. Korrikan bere atzetik ibili behar izan genuen, baserriraino iristeko. Txerriak bere jabeari azkenean, besoan koska egin zion".

Gaur egun Ordiziako Suhiltzaile Parkea mistoa da. Profesionalak eta boluntarioak daude bertan. "Nahiz eta boluntarioek hori ez duten oso begi onez ikusi. Baina mistoa, profesional hutsen parke bat mantentzea oso garestia delako proposatu dute. Boluntarioek inoiz pentsatu izan dute profesional egitea baina horretarako frogak oso gogorrak gauditu behar dira", esan du Eskoriazak.

Aurrera begira ere bide berdinetik jarraitzeko asmoa dute, beti ere Ordizia eta Goierri suteetatik babesteko.

 Loinaz Agirre



MARTINEZ

Jatetxea

Santa Maria, 10 ☎ 88 06 41 ORDIZIA

DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

LEIZEA



TABERNA

Elkartasuna eta lankidetzaz jardunaldiak Ordizian

Ekainaren 20tik 24era "Elkartasun eta Lankidetzaz" kanpaina ospatu zen Ordizian. Hirugarren Mundua osatzen duten herrien errealitatea gure gizartera hurbiltzea izan dute helburu bertan jarritako erakusketek, artisautzak, standak, bideoak eta mahai inguruak. Ordizia internazionalista denik ez zekienak, orain badaki.



Mahai-inguruan ikuspegi oso desberdinak lekua izan arren, denek adierazi zuten hirugarren Munduarekiko elkartasuna.

Bertako Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolatu ditu ihardunaldi hauek, 6 Erakunde Ez-Gubernamentalekin batera: Manos Unidas, Askapena, Hirugarren Mundua ta Bakea, Parrokiako Misio Taldea, Mugen Gaienetik (Hegoa Mugarik Gabe) eta Komite Internazionalistak. Lan talde bat sortu da, zenbait ekimen bultzatzeko. Baina, ados ez daudela %0,7arekin, Udalaren protagonismo gehitxoarekin, e. a. eta Askapena desbinkulatu egin da hortik azkenean.

Datuak zirrargarriak dira: munduko biztanleriaren %20ak bikoizten den %85 kontsumitzen du; biztanleriaren

gainerako %80a, gelditzen den %15arekin konformatu beharrean dago.

Nikaraguan urtebete eta Guatemala-ko errefuxiatuekin 3 urte Mexikoko Chiapasen eginak dituen Mugen Gaietik-eko Emilio Rodriguezek esaten digunez, "banaketa injustu honek zenbait izurrite, Afrika eta Asia hegoaldeko gogoseak, herri pobreen kanpo-zorren pisua, giza eskubideen eza, zenbait ajuste politika eta hainbat egoera injustu eta ez-gizalegezko daramatza bere baitan".

Egun hauetan burutu diren %0,7aren sustatze kanpainak herritarren erantzun baikorra izan du, "eta uste dugu beharrezkoak direla horrelako ekimenak Instituzioei %0,7aren erantzunkizuna eskatzeko, Ordiziako Udalak betetzen duen eran, ahaztu gabe, herritarrok gure alea jarri behar dugula, ze Instituzioek ematen dutena 500 peztan urteko ematen baitute gehienez".

Dakizuenez, aitzindaria den Ordiziak, Gasteiz hiriarekin batera, bere aurrekontuaren %0,7ko laguntza (6 miloi aurren) zuzentzen du Hirugarren Munduko proiektu desberdinetarako. Ihardunaldi hauekin espero da Goierriko eta Gipuzkoako Udal gehiagok beren aurrekontuen %0,7a eskeinitzeko dietela herri txiroei. Goierriko 18 Udalarietako alkateak bildu dira eta Zaldibia eta Olaberriak %0,7 hori ematen dute dagoeneko; Lazkao %0,4 eta Idiazabal ere inguru horretan dabil.

 Mikel Aramendi

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN



MUJICA


LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

MASAJISTA DIPLOMATUA

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52
ORDIZIA

 **BEASAIN**

GIPIZKOAR AU- RRESKU TXAPELKETA

Edu Muruamendiaraz bergararrak irabazi zuen ekainak 25ean. Berau Ordiziako Enparantza Nagusian burutu zen eta Euskal Herriko txapeldunak puntuketa onena lortu zuen aurrekua osatzen duten lau ataletan. 10 aurrekularik hartu zuten parte eta 2. postua Errenteriako Jon Maiak lortu zuen eta 3.a Jose Ignacio Viguera donostiarra. Aipatu Ramon Sanchez, E.H.ko txapeldunordeak ez zuela parte hartu.

I Txapelketa hau egiteko proposamena Euskal Dantzarien Biltzarretik etorri zen, kontutan izanik Ordiziak baduela usadio herrikoiak gordetzeko ohitura. Iztueta zaldibitarraz gain, izan dira dantzazaleak eta dantza-eskolak Ordizian, hala nola, Jose Antonio Olano, Jose Lorentxo Pujana eta bere seme Kandidorenak. Kandidok 1948an bere aitaren lekukoa hartu zuen "Udalaren Gipuzkoar Dantza Herrikoien Eskola" eta 51n "Goizaldi" izena hartu zuen taldeak. Talde honek dantza-arloa mantendu eta garatzeko egindako lana, guztiek ezagutzen dute. Talde horretan ordiziar ugari ibili dira: Aranburu, Hidalgo, Arrieta, Lekuona, Sarasola, Etxebarrieta, e.a. Gaur egungo "Goizaldi"ko lehendakaria ere Txapelketa honetako epaimahaikoen artean egon zen.

HITZARO EUSKARA TALDEkoek, taldea ezagutarazi nahian, bazkideei dei bat egin berri diete argazki bat atera eta argitalpentxo



Hitza euskara taldeko kide batzuk

Arg.: Goen

bat kaleratzeko asmotan. Era berean, bertan ditugun herriko festak ere aprobetxatu nahi dituzte taldearen berri eman eta bere helburuak zeintzu diren ahalik eta jende gehienari helarazteko. Horretarako, festetan mahai batzuk jartzea pentsatu dute eta bertan bazkide egiteko orria eta dirua biltzeko elzteitsu bat egongo dira. Pegatina polit asko bat ere ateratzekotan dira "jaiak bai, euskaraz blai" lemapean.

UDALA ETA JAURLARITZAKO HIRIGINTZA eta Etxegintza Saila akordio batetara iritsi dira herrian 59 etxe berri eraikitzeke. Promozio publikokoak izango dira hauek. San Juan auzoan 27 etxebizitza sozial altxatuko dira eta Majorin, berri, babes ofizialeko 32. San Juanen

hiru bloke egingo dira datorren urtetik aurrera eta Majorin lanak hasiak dira jadanik.


RUGBY TALDEKO jokalaria den Jon Ander Gorosperen iritziz, istalakuntza on batzuekin Gipuzkoako talde nagusia litzateke Ordiziakoa. "DV"ri adierazi zionez, lehen taldekoek bere helburuak bete ez badituzte ere, gaztetxoek maila handia erakutsi dute, zenbait garaipen lortuaz. Gorospe bera, Hilario Esnaola eta Pedro Luis Txurruka izan dira harrobia bultzatu dutenak neurri handi batean, oinarriak promozionatuz eta Goierrin ezagutzera emanaz kirol hau. Bailadatik 24 jokalaria infantil eta 20 kadete biltzea lortu dute.

 Aitor Calvillo

JAKIN MINEZ BAZAUDE
Gipuzkoako HIES Kontrako
Elkarte Hiritarra

Easo Kalea, 53 - 1. Esk.
Tfnoa.: 47 20 36
EIBAR

Zure diru laguntza: Kutxa
00.1029737.2



belén

Jostailuak
Lorak
Opariak
Margotutako paperak

Urdaneta, 24 ☎ 88 52 65 ORDIZIA



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

Pintura Tailerraren emaitzak Kultur Etxean

Udal Pintura Tailerreko ikasleek urtean zehar egindako lanen erakusketaren inagurazioa izango da Kultur Etxean uztailearen 8an. Jokin Telleria pintore beasaindarraren aginduetara 38 ikasle aritu dira urtariletik ekainera bitartean pinturaren, artearen ezkutuko sekretutxoak ikasten. Era eta adin guztietako ikasleak izan ditu Telleriak. *"6 urtetik hasi eta 80 urte bitartekoak. Batzuek denbora pasa eta besteak zerbait ikastera etortzen dira. Astean bi egunetan, hiru talde izan ditut"*, esan du Jokinek.

Pintura artistikoa landu dute. *"Arkatzarekin, oleoak, akuarelak, e.a. erabili ditugu eta erakusketa bertan egindako lanen emaitza da"*, gaineratu du. Pintura Tailerraren helburua aisialdirako aukera bat izatea eta Arte Ederren munduan sartu nahi dutenak prestatzea dira. *"Ikasleen artean badaude batzuek poliki egiten dutenak. Baina batzuek bakarrik. Eta eskerrak horri,*



bestela, hainbeste pintorerekin kaosa izango litzateke".

Erakusketa astean zehar 19.00etatik 21.00etara eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara izango da ikusgai. Uztailearen 17rarte egongo da zabalik.

Aire libreko zinea

Azken urteotan bezala, uda iristearekin batera aire librean zinea ikusteko aukera aparta izango da. Porteria auzoko Ezkierdi Pilotalekua zinema bi-

lakatuko da ordu batzuez. Uztailearen 8an, 22.30etan, 'Solo en casa 2' filmea botako dute. Uztailearen 15ean berriz, ordu eta leku berean, 'Jeremiah Johnson'.

Ikurriñak 100 urte

Uztailearen 14an ikurriñak 100 urte beteko dituela eta, HBk Udaletxean ikurriña jartzeko aurkeztutako mozioa onartu egin du Beasaingo Udalak, EAJ, PSOE-EE,

HB eta EAren aldeko botoekin eta EUEn abstentzioarekin. Horrekin batera, egun horretan balkoietan ere ikurriña jartzeko deia luzatu du Udalak. Era berean, HBk uztailearen 14an Goierrin zehar bizikleta martxa bat antolatu du eta 16rako, Usurbe eta Murrumendirako mendi ibilaldia egingo dute eta bi mendiotan ikurriñ bana jarriko dute. Ondoren bazkari herrikoia izango da.

 Loinaz Agirre

ZALDIBIA

Kontsuelo Erauskin mojaren urrezko ezteiak

Urtukoerrotako Maria Kontsuelo Erauskinen moja sartu zeneko 50. urteurrena ospatu zuen joan den ekainaren 25ean. Etxeko eta tarterikoz inguraturik eman zuen eguna Medina de Rio Seco klausurako bere komentuan. Orain dela 52 urte sartu zen "Carmelitas Descalzas de San Jose" izeneko ordenan. Geroztik bertan bizi da, kontenplazio bizitzari emanik. Momentu honetan 15 moja daude Medinako komentu horretan, horietatik bi sartu berriak direlarik. Bitxikeria moduan esan dezagun Mari Kontsuelok baduela ahizpa bat ordena bereko Zumaiako komentuan, eta etxetik atera zirenetik behin besterik ez dute elkar ikusi; hain zuzen, Aita Santua Espainiara etorri zenean.

16-GOIERRITARRA

"Uda 94" programa

Udaletxeko Kultur Batzordeak bul-tzaturik, kirol ekintza eta ikastaro ugari antolatu dira uztaileko, ume eta gaztetxoentzat, hala nola, piraguismo, eskalada, hipika, parapente eta teniseko ikastaroak. Bestalde, uztailearen 4tik 22ra, 12 urtez azpiko haurrentzat, joko eta jolasak izango dira herriko plazan.

Gazteak Gaztetxearen eske

Herriko gazte taldeak Gaztetxea lortzearen aldeko kanpainari ekin dio egunotan. Bilera batzuen ostean, joan den San Joan bezperan, bertsoz eta kantuz azaldu zuten euren desioa, herriko plazako oholtza gainetik. Egun hauetan,

bestalde, gaineratiko herritarren apoioa eskatuz, firma bilketa egin dute. Gai honen gainean Udalak zer pentsatzen duen jakitea garrantzitsutzat jotzen dugu. Hara zer erantzun digun alkateak: "Oraindik guregana etorri ez arren, pentsatzen dugu aurki presentatuko digutela proposamena. Gu prest gaude hitz egin eta gazte entzuteko; baita gaia elkarrekin aztertu eta gure eskuetan dagoena egiten saiatzeko ere. Dena dela, lehen ere geure artean mintzatu izan gara honetaz, modu erdi-informalean bada ere. Kezkatzen gaituen asuntua da eta, ezpairik gabe, behar den tokian kolpea betaro eman beharrean gaude".


 Rufino Iraola

Artearen irudia, herriaren ezaugarria

67.a arte herria izan zen Altzaga, Itsasondan integraturik gelditu zen gerora. Baina berriro udalerrri autonomoa da. 25 bat baserriz osatutako herria da gurea, 100 bat biztanle dituelarik. Gure sinboloa berriz, artea. Zuhaitza Altzagako kaskoan, plaza-
ren erdian, elizaren atarian kokatua dago. Bere inguruan ditu 3 baserri, errepidea, udaletxea eta erretoretxea. Inguruko zelaiak aldapatsuak dira, hegoaldera begira daudenak eta hai-
zeetatik babesean.

Arte hau, *Quercus Ilex* espeziekoa da, *Fagazea* familiakoa. Bere forma adierazi daiteke esanez gerria motza eta sendoa duela, buruko adarrak goruntz begira dituela eta gaina adartsua eta borobila duela. Dimentsio zehatzak: gerriaren luzera, 3,50 m.; lodiera, 3,40 m.tako zirkunferentzia; altuera osoa, 15 m.; zabalera osoa, 17 m.tako diametroko itzala. Bitxia da lurralde hauetan ez bait da halako zuhaitzik asko ikusten; Meditarra-
near klima duten lurraldeetan hazten da. Azal gris-iluna dute arteek, adar-
gain zabala, 20 m.tako altuerara irits daitekeena. Orriak perenneak ditu, kolore berdekoak eta zurizka azpitik, mutur-
zorrotz eta arantzadunak dira. Ezkurak dira bere fruituak, txerriak gizentzeko asko erabiliak (baita ja-
nari eta botika bezala ere). Bere egurra horizka da eta su-egiteko ezin ho-
bea.

Artearen adinari dagokionez, bestalde, 111 urte inguru ditu (lehen ere izan zen beste arte bat, herri eta elizaren sorrera inguruan aldatua: 300 urte egin zituen). Dokumentuek



diotenez 1882.ean aldatu zen gaur dagoen lekuan. Bertako jende zahar-
ren iritziz, berriz, 106 bat urte lituz-
ke. Inozentzio Munita "pinu-
apaiz"aren "Gure Mendi eta Oianak" liburuan 96 urte ematen zizkion 52.ean eta orain duena baino metro bat gutxiagoko zirkunferentzia omen zuen. Neurri bikainak ditu eta bere formak duen simetriak edertasun pa-
regabea ematen dio, urte guztian hosto berdez josita baitago. Guzti honek eta bere kokapenak, herritar-
ren artean dudarik gabeko monu-
mentu-maila ematen dio.

Aintzinakoaren inguruan bezala, arbol "berria"ren inguruko kultura asentatua eta kondaira nahiko zabala ditu hemengo jendeentzat. Aipaga-
rria da, dirudienez, herri-mailako bilkurak arte-azpian egiteko ohitura zela. Ospakizunik aipagarrienak ar-

te-azpian egiten dira: urtean zehar egiten diren prozesioak artea ingu-
ratzen dute (badirudi ohitura hau as-
palditik datorrela); festetan ere (San Migel egunean, irailak 29), errome-
riak, herri-kirol saioak, umeen jola-
sak bere itzalean egiten dira.

Artearen irudia herriaren ezauga-
rria da eta jendeak oso barrenean sartua du. Hona hemen 3 adibide: bertako Elkartek "Artea" izena du eta Udalerriko zigulua eta harma-
rriak arte baten irudia dute. Badirudi joera honek jarraipena izango duela, zeren arte honen ezkurretatik itsasi-
tako landareak bai baitaude herriko zenbait etxeetan eta baita ere, daki-
gunez, Arantzazu aldean.

 Pako Zubeldia, Mikel Oiarbide eta Imanol Mujika

MEKABIZKOR



BEASAIN

Bizkor eta errez mekanografia ikasteko metodoa

San Inazio, 15 - 1.

☎ 16 15 53

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUA

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

Ikastaro trinkoekin uztaila bero Maipiden

Aurten hogeigarrenez eta uztailaren 4tik 22ra bitartean, Hego eta Ipar Euskal Herriko eta atzerriko (Belgi-ka, Hegoamerika,...) 248 lagun gure herrian ditugu euskara ikasi eta lanean, Maizpide Euskaltegiak antolatutako udako ikastaro trinkoetan. Hiru astetan jo ta su, gau eta egun, eskolan eta kanpoan euskaraz ari dira barra-barra. Batzuk ondo eta xuxen, beste batzuk erdipurdi, aditzak ezin asmatuz, ahoskera arraroz... baina intentzio eta borondate guztiaz.

Egunero sei orduz dituzte eskolak eta ondoren kultur ekintza ugari: dantza ikastaroa, oihal pintaketa, hiru dimentsiotako koadroak, bertso ikastaroa, mus txapelketa eta gainera, uztailaren 5ean Mikel Markezen kantaldia, 7an Goierriko bertsolarien



saioa, 13an Errenteriako Ereintza Dantza-taldearen saioa, 14an Koldo Ameztoy ipuin kontalaria, 19an "Eun dukat" antzezlan Goaz taldea-

ren eskutik eta 21ean Iparragirre anai-arrebekin trikitixa.

Txoko honetatik dei bat luzatu nahi dizuegu herritarroi, kaleko giroa inoiz baino euskaldunagoa izaten saia zaitezten. Kanpotik datozen ikasleek aurki dezatela Lazkaon, eskolaz kanpo ere, euskaraz entzun eta hitz egiteko aukera. Horretarako hitz egin behar dugu ume, gazte, heldu eta ahal dugun guztiok. Alimo!

Udaleku irekiak eta kirola

Bai Ikastolak eta bai Eskolak, bi hilaletetako oporraldiak euskara aldetik umeak atzendu egiten dituela konturatu eta bakoitzak bere Udaleku irekiak martxan jarriak ditu hilaletetaren honetan. Jolasean euskara landu eta ondo pasatzea helburu duen ekintza honetan, egunero hiru bat orduz umeek hamaika jolas eta "lan" egiten dute begiraleen laguntzarekin.

Eta udako egun luze hauen orduak betetzen laguntzeko, kiroldegiak eskaintzen duen aukera ezin hobea dela esan behar: tenisa, igeriketa, pilota, saskibaloia, piraguismoa, mendia, eskalada... Ume, gazte eta batez ere helduon gihar kizkurtuak luzatzea lortuko al dugu hil honetan!?

San Joan eguna Lazkaon

Bezperatik hasten da festa, aurreko egunean ikusi genuen bezala, makala traktore batekin arrastaka ekarri zutenean. Gure garaian, orain dela 50 urte ere, makala gauean bota, nagusiaren baimenik gabe, gazte-talde batek bizkarrean plazaraino eramanean, han zuloa egin eta eskailera xaharren baten laguntzaz eta geure indarrarekin, eupaka, hurrengo goizerako zutik.

Badaude herrian aipatu beharreko bi gertakizun. Hauetako bat, Zubierrekan gertatutakoa da. Apaolaza nagusiak ba zekien oso makal dotorea zuela eta goizeko ordubiak arte egon zen hura zaintzen. Alabaina, beste batek ere bai bera zaindu eta hura etxeratu zenean, makala bota eta etxe-atarian jarri zion. Hurrengo goizean, jeiki orduko han non ikusi duen bere makal hori, hartu aizkora eta jo ta bota zuen. Beste batean, orain dela 80 urteren bat, baratzaren batetik harapatutako 3 azaburu makal puntan jarri zituzten. Napar kaskalen bat izan omen zen.

Aurtengoan, San Joan bezperan zaborra pila metatu zuten plaza erdian. Florentino udaltzainak, gaueko 10,30-etan eman zion su. 16 lagunez osatutako txistulari-taldeak San Joanen abestia eta beste batzuk zituzten eta ondoren, Antzar Gazteak musika-taldeak bere erreperorioarekin jarraitu zuen festa alaitzen. Jendetza ugari bildu zen, bai heldu bai haurtxo. Aurten, sekulan baino jende gehiagok dantzatu zuen, giro zoragarria benetan, ilargi bete lagun.

San Joan egunean, Zubierreka auzoan dagoen ermitan, 11etan, Don Pedrok meza eman zuen. Ohitura denez, jendea bere erramua eskuan zuela joan zen, bedeinkapena hartzearen. Ohitura bihurtu den bezala, neronek 4 bertso kantatu nituen mezaeren erdian. Meza bukatu ondoren, hamaiketako paregabea izan zen. antolatzaileei zoriontzeko modukoa. Jende ugari hartu zuen parte, Alkate jauna bertan zelarik.

 Andres Barandiaran

 Mari Joxe Madariaga eta Aitzol Arruabarrena

San Gregorion, frontoi berria

San Gregorioko frontoi berria egiten aurren bertan has daitezke. Joan zen ekainaren 21ean San Gregorion egindako plenoan, obrak adjudikatzeko Baldintza Pleguak onartu zituen udalak. SESTRA ingenieros etxeak egindako proiektua irailean aterako da konkurtsora. Urrian, hautatutako eraikitzaileari lana adjudikatu, eta frontoi berria azaroan egiten hastea da udalaren helburua. Obrak sei bat hilabete iraungo luke.



San Gregorioko frontoia

Arg.: Joxe Begiristain

Frontoi estaliak, 81.544.155 pezetako aurrekontua du, honorarioak eta gaur egungo frontoia botatzaren kostuaz gain. Oraingoan, Diputazioak ez du horretarako dirulaguntzik aurrikusi. Udalak ordea, laguntzarik izango denaren hitza jasoa du bertatik. Edozeinetara ere, dagoeneko gehiegi luzatu den frontoi berriaren eraikitze lanen hasera beraz, urte bukaerarako ikusi ahal izango dugu.

Sarara bidaia

Joxemiel Barandiaran Murkondo kultur elkarteak, Joxemiel zenaren hainbat urtetako bizigune izan zen Sara herrira bidai bat antolatu du uztailaren 16rako. Sara bera eta leizea ere ezagutu ondoren, Elizondon ere geldialditxo

bat egingo da. Joan nahi dutenek, hilaen 12rako, astearterako, eman beharko dituzte izenak.

Abaltzizketarrak nagusi

Auzoeta Udal Kiroldegiak antolatuta, otsaila ezkerko zapatuero hiru partidu jokatzuz burutu den Ataungo I. Futbito Txapelketa, Eroski Taberna izenpean jokatu duen Abaltzizketako lagun talde batek irabazi du. Bejondeizuela.

Udal liburutegia

Liburutegia, uztailaren 26tik abuztuaren 22ra bitartean itxita izango da. Gainontzeko egunetan, irailaren 12rarte, goizeko 11etatik ordubaterarte egongo da irekita.

Eguzki Berri aldizkaria

Joxemiel Barandiaran Eskolako 8. mailako ikasleak, aldizkariaren 39. zenbakia argitaratuz agurtu dira. Datoren ikasturtean, orain 7. kurtsoa bukatu dutenek hartuko dute lekukoa 40. zenbakiarekin. Guk geure aldetik, urte osoko lan osagarri preziaz horren begirunez, azkeneko zenbakian irakurri dugun olerki bitxi bat aukeratu dugu lan guzti hoiekiko esker ona azaldu nahiean. Olerkia, 5.

mailako Aratz Badiola mutikoarena da:

HORI BAI KOTXEA!

Zu bai zarela kotxea!

Zure izena McLaren F-1 da,

zure 854 zaldiek

ez diote edozein kotxeri barkatzen.

Ezin da ahaztu

zure suspentsio integrala,

ez da 48 balbula zilindrikoak ere.

Horrez gain

inyektore infakzialaren presioaren bidez,

ABS total alkanforikoak

izugarri indartzen ditu.

Zu zara lau gurpiletan onena!

 Joxe Begiristain

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
☎ 88 26 31

LAZKAO



Gero dator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

 **GOIERRITARRA**

3.700 ale
12.000 irakurle

Erlijioa eta festa Liernin

"Ormaiztiarrek" urtero eusten dioten ohiturari aurreten ere jarraipena emateko asmoa susmatzen da. Lierniko Amabirjinak, garai batean "Ama Birjina Letxera-koa" izenez ezagutzen zena, ospakizun beroa izango du. Garai bateko erromes bidea mendiz eta pausoka egiten bazen ere, gaur egungo modernismoak direla eta askok eta askok bide hori gutxiago kostata egingo du; hala ere, izango da mendiko botak jantzi eta abiatuko denik.

Egurrezko Ama Birjinatxo honek aspalditik izan ditu hainbat leial: 1625ko idazki batetan azaltzen da lehenengoz Lierniko ermittaren esistentzia. Eta 1926an Lizarralde histori-gileak "Santutegi koxkor honen izena hedatua da Euskal Herriko lau probintzietako herririk baztertuenetara ere", idazten du. Ingurueta baserriarren errogatiba eta konjueroen entzule gustokoena izan da urteetan zehar. Jendetzak biltzen zituen bere inguruan, egu-



Arg.: Jon Aldanondo

raldiaren gehiegizko edo eskasiaren konponbide izan zedin helburu zutela.

Hilaren 10ean, igande honetan beraz, ospatuko da festa hau. Bertan hainbat gauza ikusi eta parte hartzeko aukera izango da. 12etan izango den Meza Nagusiaren aurretik, bertara azaltzen den guztiarentzat hamaiketako. Ondorenerako ume jolasak eta bazkari herrikoi bat dago programatua. Kafe- ondoren, soka dantza eta ardi ile mozketa apostua dago aurrikusita, La-kiola aita-alabak ezkiotar bikote baten

aurka. Eta nola ez, hori dena trikiti doinuaz lagundua. Animatu, inguruko zelaietan denontzako lekua izango da eta.

Txikientzat udalekuak

Beste urte batez Udalak udaleku irekia antolatu du uztailaren 4tik 15erarte. Bertan 4 eta 12 urte bitarteko haurrak elkartuko dira, helburu bakar batekin: uda ahalik eta hoberen pasatzea. Erabiliko den metodologia oso xumea da, natura, ingu-

runea ezagutu, tailerrak, jokuak... On-do pasa bertan zabiltzatenoi.

Futbola bertan behera

Uztailerako aurrikusitako futbol txapelketak bertan behera egin behar izan du. Epea joandako 28an itxi zen eta ez zuen ligatxo bat eratzeke adina taldek izenik eman. Besterik egin ezean, beste urte batzutarako utzi beharko da ideia.

Jon Aldanondo

GABIRIA

Bideo-kamararen erabilerari buruzko ikastaroa

Orain dela hilabete inguru hasi zen bideo-kamararen erabilerari buruzko ikastaroa Udal Kultur Batzordeak antolatuta, eta ikastaro hau eskaintzen ari dena Iñigo Andola jauna dugu mundu horretan oso aditua eta gaur egun Arrasateko Telebistan diharduena. Ikastaro honetan, bideoaren erabilera automatikoa alde batera utziz, norberaren gaitasuna landu nahi izan da teoria eta praktikaren bidez, eta norberak duen kamararen ezagutza sakonagoa lortu.

Ikastaro honetan zortzi lagunek hartu dute parte eta azken egun hauetako asmoa Gabiririari buruzko erreportaia egitea izan da partaide guztiek egin duten lana eta musika nahastuz. Errepor-

taia hau Udal Liburutegian gordeko da nahi duenak ikus dezan.

San Joan suak bizirik dirau

Aintzinatik datorkigun ohitura behin berriro ere berritzeko aukera izan dugu gure herriko baserri eta zoko guztietan San Joan suari esker, sinbologiaz eta magiaz betetako gau misteriosu eta erakargarri horretan. Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena izateaz gain, zalantzarik ez da gure arbasoen pentsakeran eguzkiaren irudi den suak berebiziko garrantzia zuela etxe barrua eta bere ingurunea babesteko. Horrela, sua sakratua izanik, sorginak eta kaltegarriak diren beste hainbat eta hainbat izaki eta elementu uxatuko di-

tu. Horretarako suaz gainera, lizar adarrak jarriko dituzte ate gainetan gure baserriarrek gorputzaren eta animaren osasun eta onerako.

Egun hau iristean oraindik gogoan ditut gure herrian pasiotarrak bizi izan zireneko garai haiek eta suaren inguruan praile-mutikoez suaren gainetik salto egitean sortzen zuten giroa eta alaitasuna, behin baino gehiagotan bakarren bat sutara erortzen zelarik. Ohitura eder honek jarrai dezala luzaro gure artean!

Gabino Murua

Aconcagua eta Gasherbrum, urruti bezain gertu

Aitzol Telleria eta Felix Goiburu, hogeitabatna urte, kirolzale amorratuak, amets bera: 6.959 m. dituen Aconcagua mendia igotzea. Abenduan edo urtarrilean abiatuko dira Argentinarentz eta 20-25 egun egingo dituzte bertan. Biok esan digutenez, mendi hau nahiko egokia omen da teknika aldetik, baina oxigeno gutxi omen dago eta eguraldi aldaketak ere bapatekoak omen dira han. Hori dela eta, ondo prestatzea eta aklimatzea behar-beharrezkoa dute. Eramango duten material gehiena Lekunberriko "Ttutture" elkartekoek utzia bada ere, bakoitzaren aurrekontua 450.000 bat pezetatakoa izango da. Gastuei aurre egiteko mila bat niki atera dituzte eta herriko hainbat tokitan eskura daitezke, neurri, modelo eta prezio desberdinetan. Errifaren bat ateratzea ere ez du te baztertu.



Aitzol eta Felix "Picos de Europa"-ko aterpe batetan, iazko irailean

Beste herritar batek, aurrean Choyu egin duen Rafa Berasategik, 8.035 m. dituen Gasherbrum II egiteko asmoa du beste bi lagunekin batera. Mendi hau, Pakistan eta Txinaren arteko mugan dago eta 95eko maiatza-ekaina aldera dira abiatzekoak. Gastuak kostatu asmoz, kolore eta tamaina desberdinetako nikiak atera dituzte eta txoznak jartzen ere hasi dira.

Igerilekua zabalik

Ekainaren 27an zabaldu zuten "Oxina" igerilekua udako denboraldirako. Irailaren erdi alderarte bertan bainatzeko, eguzkia hartzeko edo bazkari-afari ederrak egiteko aukera aparta izango da, herriko bertako produktu eta guzti. Aurtengoan tabernaren ardura Iñaki Ormazabal, Gorka Izagirre eta Jon Gotzon Osinalderi suertatu zaie. Sokorrista moduan Aitziber Etxeberría eta Karmele Albisu ari-tuko dira. Inork otordurik enkargatu nahiko balu, dei dezala aurrez 800265 telefonora. Tabernarako sarrerarik ez bada behar, igerilekura sartzeko bai ordea, hauetxek: sarrerak: 3-7 urte artekoak, 100 pzt.; 8-13, 200 pzt.; 16tik aurrera, 300. Bazkide txartelak: 3-7 urte artekoak, 1.400 pzt.; 8-13, 1.700 pzt.; 16 urtetik aurrera, 2.900 pzt. Familientzat merkeago daude bazkide txartelak.

 Joseba Telleria

IDIAZABAL

Hizkuntzaren egoera herrian

Idiazabalen, bailarako beste herrietan bezala, euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza, nahiz eta azken urte hauetan industri-mundua asko garatu den. Egoera honetan, eta honek dakarren inmigrazio-mugimenduaren ondorio bezala, gaztelarak indar handia hartu du. Hasiara batean, gure herria nekazaritzatik bizi zen beste hainbat herri legez. Baina lehen aipatu dugun industri garapen hori dela medio, nekazari-mundua apurtzen joan da pixkanaka. Oraindik ere, baserrian hezi eta bizi direnak, euskara erabiltzen dute beraien eguneroko bizitzan eta hauen seme-alabek gurasoengandik jasotako heziketa jarraitzen dute, nahiz eta herri-mailan erdararen erabilpena gehituz joan den. Zenbait herritarri, egun, erdara behar den bezala menderatzeak hainbat jenderen aurrean ondo gelditzea suposatzen dio, euskara etxeko

hizkuntza legez utziz. Eta honen arrazoia, gure ustez, erdara euskara baino gehiago dela pentsatzea izan daiteke.

Kanpotik herrira bizitzera etorri diren erdaldun gehienak gune konkretu batzutan kokatu dira, hala-nola, Zigor auzoan dozena erdi bat familia, Jeronimo-enean lau bat, Kale Nagusian... eta beste bakan batzuek. Herriratu diren hauek ez dute arazo larririk izan herritarrekiko harremanetan, beren hizkuntza mantenduz, besteek euskara baztertu eta erdaraz aritzera bultzatu bait dute. Honez gain esan, erdaldun hauek beraien mikromundua sortu dutela, honek euskara ez ikasteko eragina izan duelarik. 2.085 biztanle dituen herri honetan, bi hizkuntzak entzun ditzazkegu kalean, euskara poliki-poliki indartzen doalarik.

"Hizkuntza Ordezkapenaren Non-dik-Norakoak Goierri", Maite eta

Xabier Urteaga, Aitor Goiburu, Eba Elortza, Lurdes Intxausti eta Edurne Albizu.

Liburutegiko zerbitzua igerilekuan ere bai aurren

Uda sasoi helduta, ireki berria da igerilekua aurren ere. Liburutegiko eragintza taldeak, aurtengo udaldian esperientzia berezia burutu nahi du, liburuak irakurleen eskura jarri eta egonaldia gustokoagoa izateko. Esperientzia honen helburua, liburuak jendearengana eramatea omen da. Igerilekuan egonaldi luzeak egin ohi ditu jendeak eta pentsatu da egokia izango litzatekeela lagungarriren bat ematea. Igerilekuko zerbitzua hobetzeaz gain, liburutegiko arduradunentzat poza.

Haurdun daudenentzat igeriketa Beasainen

Joan zen azaroa ezkerotik Goierriko emakume haurdunentzat igeri-iharduera bereziak antolatzen dira Beasaingo Antzizar polikiroldegian. Astean bi egunetan (astearte eta ostegunetan) 45 minutuz aritzen dira, 8-10 lagunek taldeetan. Irakasle lanetarako, emagin bat eta gai honetan berezietutako monitore bat prest daude bertan. Dagoeneko 20 bat emakume pasa dira igerilekutik eta denak ere oso gustora geratu dira egidakoa-ekin.

Egoera ezeroso honetan aurkitzen diren emakumeei, ariketa batzuk aurkeztzen zaizkie, uretan mugimendu errazez iharduera fisiko bat eginez. Honekin batera zera lortzen da: erdizterakoan erabiltzen diren giharrak sendotzea, malgutasuna hobetzea, zainetako odolaren itzulera laguntzea, gaitasun propiozeptiboa hobetzea, arnas gaitasuna hobetzea eta erlajazio on bat lortzea.

Igeri ikastea ez da egitarau honen berezko helbura, lehorrean egiten diren erditzeko egitarauak uzten duten

hutsune betetzea baizik. Hauetariko egitarau asko, haurdunaldiaren azkeneko hiru hilabeteetan egiten dira, beraz, aurreneko hilabeteetan, emakumea, iharduera fisiko orokorretik erabat baztertuta aurkitzen da. Asmoa ez da ikastaro horiekin lehiatzea, **osatzea** baizik.

Haurdunaldiak bizkar-hezurrean eragiten duen oinarritzko aldaketa, Lordosis Lunbarra handitzea da eta honen konpentsazioan Bizkarreko Zifosia, hauen eraginak, Lunbagiak edo Ziatikak izaten dira. Lunbar atala, bizkar-hezurreko atalik ahulena da, edozein eratako zamaren aurrean eta patoloji desberdin asko kokatzen dira. Gorputza uretan sartzerakoan bizkar-hezurreko artikulazioak, lasatzen dira, grabitate indarra murriztearen eraginez eta erlajazio sentsazioa lortzen da. Gorputza askatasun handia-koz eta ahalegin txikiagoz migitzen denez artikulazio eta gihar lana laguntzen da.

Igerilekuaren giroak (28°) azalaren odolzetatzea laguntzen du eta odol


zirkulazioa hobetu, horren eraginez ama eta umeen oxijemazioa handituko da, haurdunaldian nahiz erditze unean. Honez gain, posturaren zuzenketa, giharren arteko koordinaketaren hobetzea eta beste hainbat onurerek egoera honetan hartzen diren botikak gutxiaraziko ditu.

Iharduera honek, afektibitate arloan berriz, eragin garrantzitsuak lortzen ditu. Emakume hauek, egoera desberdinean aurkitzen dira, haurdunaldia era desberdinean bizi dute. Beraiek, hainbat arazoez eztabaidatzen dute eta lehenago erditu dutenek berriz, beraien esperientziaz hitzegin. Taldean lagungiro baikor eta jator bat sortuz.

Saio hauetan igerilekua erreserbatutik egoten da, bertan gorputza eta arnasketa lantzen direlarik. Egoera atsegin honetan, bai ama (igerian jakin edo ez) eta bai haurra onuratzen dira.

Jaione Iurramendi

Bi lerrotan



JOSETXO IMAZ BEASINDAR ATLETA, beterano mailako Espainiako txapelkun da berriro ere. Lloret del Mar-eko lehian urrezko domina lortu zuen 300 eta 400 metro hesietan. Hau ez da izan Ordizia

K. E.-koen lorpen bakarra, Jon Etxeberria eta Santiago Gonzalez-ek, Euskadiko atletismo txapelketa nagusian domina bana lortu zuten. Etxeberriak, 400 metroetan hirugarren postua egin zuen, Gonzalez-ek berriz bigarren egin zuen 10.000 metroetan.

XABIER IMAZ SEGU-RAR PELOTARIA Federazio Kopako txapelkun da Artola amezketarra bikotearekin. Herri-arte-ko Txapelketan aurka izan zuena orain bikote izan du, erreztasunez (22-7) Ianiz-Okiñena nafarrei irabazteko. Elgetako lau t'erdibarruko txapelketan berriz ez zuen zorte bera izan segurarrak. Finalean, Ortiz 22-13 nagusitu bait zen.

AITZOL SUKIA ZALDIBITAR PELOTARI GAZTEA ere Elgetako lau t'erdibarruko txapelketan finalean sartu da baina kadete mailan. Horretarako Landa anoetarri 18-8 irabazi zion. Ostiral honetan iluntzeko 9etan izango du Garzia sorluzearekin aurkako azken partidua.

KOLDO LASA ETA JOSE MARI URRETA izan dira Legorretako pala txapelketako irabazleak. Bilkoin elkarteak antolatzen duen txapelketa honen finala ez zen jokatzetik izan, Xabier Amondarain eta Xabier Agirre, beste bikoteak ezi-nezkoa izan bait zuen.

Nikolas Zeberio itsasondoarra

59.ean jaio zen Itsasondoko Itsasaga baserrian. 14 urterako OHO burutu zuen etxetik urrun zen herriko eskolan. Hainbat urtetan tornero gisa lan egin ondoren, harakin bezala ekinalditxo pasatzen eta egun Ordiziako Jakintza Ikastolan dago atezain lanak egiten. Etxean bertso zaletasun handia bizi izandakoa, "bereziki aita eta osabarengandik jasotzen nuen nik bertsotarako joera. Gainera, bi anai (Xabier eta Patxi) bertsolari izateak asko bultzatu ninduen giro horretan murgiltzera". Kuadrilarekin beti kantari ibiltzen ziren eta giro euskaldun eta bertsozalekoak izanik denak ere, oso gazterik eman zituen lehen pausuak, haserako sustoa Gabiriko Osinalde Txapelketan hartu zuela.

Bertso munduan sari batzuk jasotzen ditu, "baina nere ustez, merezitakorik batere ez". Zaldibiko Artzanberri eta Patxi Errota txapelketetan, bi urtetan herriari graziaz gehiena egindako bertsolariari zegokion saria jasoa da, ordea. Gaztaroan, oraindik zaharra ez-pada ere, gazteen txapelketetan parte hartu ohi du, "baina nahiko denbora laburrean aritu naiz bertsogintza alorrean, eztarriak ez bait zidan gehiegi laguntzen. Gero berriz hor ibili naiz gai-jartze lanetan eta Goierri nahiz



Lasarteko bertso eskoletan, astean ordubetez, maila altueneko ikasleei zerbait irakatsi nahian".


"Goierritarrak" bezala ezagutzen den taldearekin ere sarri kantatu izan du eta "Zaldibian egin izan ditugun 'entrenamendu'-bileretan nik egiten dut 'borrero' papera. Neri ez zait gustatzen afalondoan elkartu saioak antolatzea edo ariketa batzuk egin asmoz eta denbora alferrik galtzen aritzea, horregatik nahiko zorrotz aritzen naiz eta batzutan entzun behar izan dut horrelakorik". Gai-jartze lanetan, berari behintzat metodiko izatearekin, beste gabe kasik, sortzen zaizkiola gaiak, ez

lanik egin gabe, noski! "Gero eta gehiago kostatzen da gaiekin gustora gelditzea. Nik ez nuke zenbait saiotan gairik jarriko, 4-6-8 bertsolari diren-tan bai, baina besteetan gai librean gehiago kantatu behar litzateke eta gaiak, jartzekotan ere, lekuan lekukoak behar lukete", aitortzen du.

Haseratik amaierarte arrazoian zuten doan bertsoaren zalea da Nikolas, tartean errimak beharturik edo egiten diren hari-aldaketak ez ditu gogoko, datorren bezala botatako bertsoa du gogokoen; neurria, doinua, ironia, sentimendua, e.a. kontutan hartu arren, bestea da "ijitoa"rentzat garrantzitsua. Bertso eskolei dagokienean, "kezka dextente dut barrenean: bertsoetan 'oso poliki' egiten duten gazteek ez baitute aukerarik ia batere txapelketetatik kanpora eta asetzen ari dira ditxosozko txapelketekin". Hala ere itxaropentsu dago bertsolaritzaren geroari begira. Goierri bailaran, Argi-Berri Elkartek sortutako Bertso Eskolari esker, bertsozaletasuna landu eta girotu egin da eta bertsolari gero eta hobeak datozela uste du. Horrek ziurtatzen digu biharra.

 Iñaki Murua

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
INSTITUTO MUNICIPAL DEL DEPORTE
ANTZIZAR UDAL-KIROLDEGIA



PROBA EGIZU!

GOIERRITARRA



88 96 12

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
Tfn.: 88.51.68
ORMAIZTEGI



MUJIKA




BEASAIN

88 74 00

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa